

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA  
Inauteriak  
argazkitan /08

KULTURA  
Urtea bete du  
Udal Bibliotekak /09

LEINTZ GATZAGA  
Gatzagarrek Inauteriak  
ospatu zituzten /10



## KARIDADEKO BENTAREN KONTZERTUA

Gaur, egubakoitza,  
Kurtzebarri eskolan,  
22:30ean

ARATUSTEAK: ARGAZKI KRONIKA/4 • ELKARRI: SINADURA BILKETA ZAPATUAN/5

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 28**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 29**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Hezibide elkarte .....	934 79 31 32
Industrialdea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirol etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
KZGunea .....	943 79 94 44
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murrukixo ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 79 74 58
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea .....	943 79 17 00
Taxi geltokia .....	943 77 12 64
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**  
Arrasate .....

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak .....

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: AREANTZA**  
Domekan 11:30ean.

**MENDIOLA**  
Domekan 12:00etan otoitzaldia.

**GALARTZA**  
Domekan 12:30ean.

**OHARRAK**

**ELKARRIREN SINADURA BILKETA**  
Sinadura bilketa egingo du Elkarririk bihar, zapatua, egun osoan.

**ERRETIRATUEK AINGERU GUARDA EGUNA**  
Aingeru Guarda eguna ospatuko dute erretiratuek. Domekan 90 urtetik gorakoak omenduko dituzte, eta astelehenean meza eta bazkaria izango dute.

**JULIAN RETEGI ETA AIMAR OLAIZOLA MURU-ALDEN**  
Martxoaren 2an, martitzena, Julian Retegi, Aimar Olaizola eta Iñigo Simon medikua etorriko dira Muru-Alde elkartera pilotaren gainean berba egitera. 19:00etan izango da, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

**ESKI IRTEERA LUZ ARDIDENERA**  
Murrukixo MEk eski irteera antolatu du Luz Ardidenera martxoaren 6 eta 7rako. Prezio barruan logela, gosaria, afaria, autobusa eta segurudun forfaiata sartu dituzte. Murrukixoko bazkideek 85 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek 90; ikasleek, bestalde, bazkide izan edo ez, bost euro gutxiago. Izena emateko Murrukixoko lokalera jo martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**KARIDADEKO BENTA**  
Gaur, otsailak 27, Jon Maia bertsolariak osatutako Karidadeko Benta taldeak kontzertua eskainiko du Kurtzebarri eskolan, 22:30ean.

**SORGINEN GAINEKO HITZALDIA**  
Euskal Herriko historian emakumeek eta sorginek izan duten garrantziaz egingo du berba Alizia Sturtzek martxoaren 11n, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

**ORAINDELA 9 URTEARETXABALETAN**


**Fran Miguelek Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen**

Gipuzkoako Xake Txapelketa irabazi zuen orain 9 urte Fran Miguel aretxabaletarrak. Orduan esan zuen bere ezaugarri garrantzitsuena zela galduta ziruditen partidei buelta emateko gauza zela. Oraindik xakean jokatzeko jarraitzen du Franek, eta iaz ere oso ondo ibili zen.



**BERTAKOBERBAK/ Xxxxxxegilea**

*“Kaskarrazur”*



– Buruhezurra.  
*Ez igo teillatura kaskarrazurra apurtu nahi ezpozu.*

**ZORIONAGURRAK**

**Zorionak!**  
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
**ARETXAGAZETAren bidez!**  
Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaiozu ezusteko ederra!  
**Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARETXAGAZETAren agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

<b>ARETXABALETA</b> <b>Iñigo Arkauz</b> 27an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.	<b>ARETXABALETA</b> <b>Dorleta Arana</b> 29an. Zorionak eta muxu handi bat, ahizpen partetik.	<b>ARETXABALETA</b> <b>Andere Etxabe</b> 2an, 15 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lehen-gusuen partetik.

**BABESLEA**

**PHOTOSYNTHESIS**  
argazkilaritza

**35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.**

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak  
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**Liburu berrien zerrenda**

- Helduendako saila.**
- ‘Akhenaton : El rey hereje’ / Naguib Mahfuz
  - ‘Rhadopis : Una cortesana del antiguo Egipto’ / Naguib Mahfuz
  - ‘David Copperfield’ / Charles Dickens
  - ‘Numancia’ / Jose Luis Corral
  - ‘Al sur de la frontera, al oeste del sol’ / Haruki Murakami
  - ‘Proleterka’ / Fleur Jaeggy
  - ‘Castillos de cartón’ / Almudena Grandes
  - ‘El pasado’ / Alan Pauls
  - ‘Una vez Argentina’ / Andrés Neuman
  - ‘El hombre que inventó Manhattan’ / Ray Loriga
  - ‘Milenio Carvalho’ / Manuel Vázquez Montalbán
  - ‘La quinta mujer’ / Henning Mankell
  - ‘La leona blanca’ / Henning Mankell
  - ‘La memoria de la nieve’ / Antonio Altarriba
  - ‘El Ayales : la historia de Elias de Aldama’ / Jose Luis Urrutia
  - ‘Amor’ / Toni Morrison
  - ‘El Cairo en los zapatos’ / Elisabeth Anglarill

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

**MAITE**  
ILE APAINDEGIA  
Sarasate 1 behea  
Tel. 943 79 59 05  
ARETXABALETA

*Matikua jatetsxea*

Azata auzoa  
ARETXABALETA  
943 79 16 68

## ATREBENTZIAEZPADA/ Garizuman sartu gare astien. Egitten dittuzu Garizumako errituek?




**CONCEPCION RUBIANO**  
Jubilaue



**NICOLAS CORCUERA**  
Jubilaue




**LOURDES QUINTANILLA**  
Langillie



**ANTONIO LASKURAIN**  
Jubilaue



**MIREN ZUAZABEITIA**  
Jubilaue



**FRANCISCO DURÁN**  
Jubilaue

Bai, neskatillie nitzenetik egitten dittut. Eguaztenien, Hausterre-egune izenda, mezetara fan nitzen, eta eguakotxetan bijilixie egin-go dot; ahal doten neurri-xen, behintzet.

Bai. Zela ez ba! Mezetara faten naz, eta eguakotxetan bijilixie egitten dot. Gurasuengandik ikesi neuen, eta jarraiketan dot. Gaztiek ez dot uste jarraitu gure dauenik ohitturiek.

Ez, ez dauket ohitturarik. Txikixe nitzenien etxien egitten geuela dauket goguen, baiñe oin ez. Askotan etxetik kanpora bazkaitten dogu, eta dauena jan biher izetan da.

Urte asko dauket, eta ez, oin ez dot egitten. Luistarren kongregaziñuen ibilli nitzen ni, eta horixe beteten geuela lehen! Seme-alabek ez dakit egitten dauen, baiñe neuk dague-neko ez.

Bai, horixe. Lehen moduen jarraiketan dogu etxien Garizumako errituek egitten: Hausterre-egunien hautse hartzen fan nitzen mezetara, eta eguakotxien bijilixie egitten dogu.

Bai, badakit Garizuman sartu garela, baiñe ez dittut sekule be ganoraz egin errituok, eta oin be ez. Neu, gaiñera, zahartute nau, eta gauza bat jan edo beste bat, iguel-iguel dust.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK EGURALDI BIKAINA ETA GIRO PAREGABEA** Eguraldi kaskarra daukagu azken egunotan: euria zarra-zarra eta hotz. Aratuste-domeka, oster, bestelakoa esnatu zitzaigun: hotz bai, baina eguzkiak laster berotu zuen eguerdi parterako. Ez dakit mojei arrautzak eraman zizkion herritarren batek edo kasualitate hutsa izan zen, baina herriko giro paregabearekin bat etorri zen. /M.A.

## ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

### Aratusteak argazkitan

Aratuste-domeka da egunik garrantzitsuena herrian, baina martitzenean ere izan ziren ospakizunak.

ASTEAN BEHIN /05

### Sinadura bilketa Elkarrik

Sinadura bilketa egingo du Elkarrik zapatuan, Euskal Herrian; baita Aretxabaletan ere.

KIROLAK /06

### Preferentea Oñatin

Oñatiko Aloña Mendi izango du aurkari domekan preferenteko taldeak. Partidu gogorra izango da.

## ASTEKODATUA

# 35

### LAGUN BATU ZIREN PARROKIAKO BATZARREAN

Batzarra egin zuten parrokiako kideek joan zen zapatuan. Kate-siko eta bataiatutako umeen gurasoei eta azken bi urteetan ezkondu-tako bikoteei egin zieten dei; guztira, 350 herritarri.


## BESTEKEKESANA

“Alde batetik kontuan hartu behar dugu atarte batean bizilagun ezberdinak daudela, eta hori gune pribatu bat dela; eta bestetik ohore, intimitate eta irudia babesten duen legea ikusiko dugu.

Aipatutako lege horrek zera esaten du: ez legitimoa izango dela edozein tokitan pertsonen bizitza pribatua entzuteko edo grabatzeko aparatuek jartzea. Atari baten bizilagun ezberdinak bizi dira, eta edozein bizilagun atartean sartzen denean grabaketak egiten egongo ginatete. Hortaz, bizilagun horren eskubideak urratuko genituzke. Baina lege berak dio intimitate babesteko eskubidea duten pertsonen euren baimena ematen badute grabaketa horiek egitea legezkoa izango dela.

**LEIRE OKARANZA**  
Arrasate Irratia/04-02-24

## HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Zer gertatzen zaigu gizonezkooi?

Astean irakurri dut 80 urteko gizon batek emaztea hil duela. Honek labanarekin hil du, beste batek gasolina bota eta sua emanda, eta hark eskopetarekin. Lehen urrutu gertatzen zirela kontu horiek iruditzen zitzaizkan: *Espainia aldean dira, kultura handirik ez dute izango-eta...* esaten nuen neure artean. Baina gero eta hurbilagoko kasuen berri ematen digute komunikabideek: Bilbo aldean, Hendaian... Eta zergatik, ez laster herrian bertan gertatu dela entzungo dugu.

Zer gertatzen zaigu gizonezkooi? Zergatik emakumeak baino gehiago garela erakutsi behar hori? Erantzunak ez dira samurrak, eta psikologoen esku utziko nituzke, baina gizona naizen aldetik neure ikuspegia eta iritzia eman nahiko nituzke, iritzia baino ez dela esanda.

Nik ezagutzen ditudan emakume batzuk seme-alabak dituzte, etxetik kanpo egiten dute lan eta gainera, etxeko

gora beheren ardura dute. Senarrak ez dute, hala? Bai horixe, baina etxeko pisua emakume horien sorbaldetan dago oraindik. Nik ezagutzen ditudan beste emakume batzuk etxetik kanpora egiten dute lan, eta senarrak baino gehiago kobratzen dute. Nik ezagutzen ditudan beste emakume batzuk etxean seme-alabak zaintzen gelditzea erabaki dute, baina ikasketa maila altua daukate, eta noizbait lanera itzuliko dira. Hortaz, gaur egun ez dago gizonezkoak baino gutxiago den emakumerik ez

lanari dagokionean (asko egon arren hor egiteko oraindik), ez ikasketei dagokionean.

Beldurtu egiten ote gaitu bada horrek gizonezkooi? Emakumeak aurrea hartzen ari zaizkigu, eta horri indarrarekin aurre egin behar diogu? Emaztea hil duen 80 urteko gizon horrek ez dakit zer izango zuen buruan labana hartzerakoan, baina ziur nago emakumeak beldurra izango zuela begietan.

**“Emakumeak aurrea hartzen ari zaizkigu, eta horri indarrarekin aurre egin behar diogu gizonezkooi?”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETAKO  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



M. J. Aretxaga

*Edur  
usaiñe*

**F**an jaku Aratustiek eta Garizuman sartu gara. Jai egunen ostien, barau eta haragi uztie eskatzen dusku elixiek. Inork egitten ete dau ondiokan? Nagusixek akaso, baiñe gazte askok zer danik be ez dau jakingo.

Hoztute gabitz azken astiotan. Suerte edarra euki geuen domekan aretxabaletarrok egualdixekin. Girue berotute euela eta eguzkixek be bazterrak beroketie erabaki euen antza. Domekien ostien bueltie etorri jaku, eta edur usaiñekin gabitz aste danien. Lehen apur bat zurittu euskun kale bazterrak eta oinguen ikusi egin biher; beti ez daue asmetan igarliek eta. Girue beroketako rumba doiñuek dauzkogu gaur Karidadeko Benta taldien eskutik. Ezer gutxi egoten dala herrixen esaten dou sarri, hortaz, dauenien fan egin biherko gara. Kanpue eta barrue bixek berotuko dusku Jon Maia bertolarixek.

Datorren astien be badaukou hitzaldi interesgarrix. Aimar Olaizola pelotarixe eta Julian Retegi pelotari haundixe izendakue etorriko jaku. Muru-Alden egongo die, martitzenien, eta zer kontau eukiko daue, duda barik.

Gaurkuen ez dot inon izenik ekarri, hurrenguen izen biherko da; eta kontuz edurrakin.

**ARATUSTEAK/** Bai txikienek, bai gaztetxoek ederto ospatu zuten Aratuste-martitzena, nahiz eta hotz handia egiten zuen

# Aratuste-domekaren ostean, martitzeneko ospakizunekin gozatu zuten gaztetxoek



Santa Ageda mutilek nesken laguntzarekin ederto egin zuten Txino dantza.



Jende ugari batu zen arratsalde partean egin zuten manifestazioan.



Ume txikiak ere mozorrotu eta Aratuste jaiaren parte hartu zuten martitzen goizean.



Hotz handia egin zuen, eta dantza eginez berotu behar izan zuten gaztetxoek.



Anana jantzita heldu ziren Almengo gaztetxoak Herriko Plazara.



Ez zen herritar askorik batu afarian —35 guztira—, baina giro bikaina izan zuten.




**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel  
Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya  
Arquero**



**ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA**

Mitarte 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01



- Fiskala  
- Kontablea  
- Juridiko/laborala

Andrá Mari Auzunea 3  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 29 26

ELKARRI/ Euskal Herriko herri guztietan egingo dute sinadura bilketa zapatuan

## Sinadura bilketa egingo dute Elkarriko kideek bihar, zapatua

M.A.

Sinadura bilketa kanpaina egiten dabil Elkarri Euskal Herri osoan. 100 mila sinadura batu gura ditu bakea eskatzeko, eta zapaturako deialdi berezia egin dute: 1.000 mahai kalera. Hala, Aretxabaletan ere jarriko dute mahai bat herritarren artean sinadura bilketak egiteko.

Sinadura bilketak egiten dabilta Elkarriko kideak azken hilabeteotan. Aretxabaletan, beste herri batzuetan bezala, Elkarriren tailerra dago, eta sinadurak batuko dituzte zapatuan.

### 100 MILA SINADURA

Dagoeneko 75 mila sinadura inguru batu dituzte Elkarriko kideek Euskal Herri osoan. Helburua, baina, 100 mila batzea da, eta horretarako 1.000 mahai aterako dituzte kalera bihar, zapatua. Ez hori bakarrik, mahai horietan guztietan egoteko 3.000 boluntario egongo dira kalean. Aretxabaletan mahai bat jarriko dute goizean, eta beste bat arratsaldean. Eguraldiaren arabera erabakiko dute non jarri, baina han ez bada hemen ikusteko moduan egongo dira.

Sinadura horiek guztiak batzeko kanpaina martxoan bukatuko dute. Hala ere, zapatuko izango da kalean egingo duten azken ekitaldia.

### ARETXABALETAKO TAILERRA

Orain dela zortzi bat urte sortu zuen Elkarri lehenengo taile-



Aratuste-domekan ere sinadura bilketa egin zuten Elkarriko kideek Aretxabaletan.

rra Aretxabaletan. Herritar ugari hurreratu ziren orduan, eta mugimendu handia sortu zen tailerraren inguruan. Poliki-poliki, ordea, jendea aldentzen joan zen eta tailerra desagertu.

Aurten berriro sortu dute Elkarriren tailerra gure herrian. Hiru lagunek osatzen dute, eta asko ez badira ere, aurrera egin gura dute. "Jende gaztea behar dugu taldean, asti apur bat daukana", dio Anjel Loidi taldeko kideak. "Sinadura bilketa kan-

painarekin gabilta orain burubelari, baina hori bukatutakoen ere aurrera jarraitu gura dugu". Aratuste-domekan ere atera zuten mahaia kalera sinadura bilketa egiteko, eta 90 sinadura inguru lortu zituzten.

Bakea Elkarri proposatzen duen bidetik etorriko dela sinistuta dabilta lanean Anjel eta bere kideak, eta herritar guztiak animatu gura dituzte sinadura eman dezaten. Badakizue, bihar, egun osoan, Aretxabaletan.

## LABUR

### Bai herritarrak bai Kultura batzordea pozik daude Santa Ageda mutilen jokaerarekin

Herritarrak zein Kultura batzordea pozik daude aurtengo Santa Ageda mutilek izan duten jarrerarekin: Xabier Sarasua Kultura zinegotziaren esanetan usadioa errespetatuz ibili dira jai giroan, eta etxafuegoak bota badituzte ere ez dute sortu beste urte batzuetako zalapartarik, ezta txikiziorik egin ere. Udaletxean ere ez dute herritarren inolako kezarik jaso. 28 lagun izan dira aurten Santa Ageda mutil, eta otsailaren 4tik 22ra bitartean bost jai egun izan dituzte. Ea datorren urtekoek jarraipena egiten dioten.

### Karidadeko Benta musika taldeak kontzertua eskainiko du gaur Kurtzebarri eskolan

Gaur, egubakoitza, Karidadeko Benta musika taldearen kontzertua egongo da 22:30ean, Kurtzebarri eskolan. Loramendi Eskara Elkarri antolatu du kontzertua, eta 3 euro ordaindu behar da sarrera. Karidadeko Benta taldea Jon Maia bertsolariak osatu zuen beste musikari batzuekin batera, eta bertsoak aitzakia hartuta munduko doinuak erabiltzen dituzte kantuak egiteko. Tradizioak eta modernitateak bat egiten dute kontzertuetan, eta abestiak bat-batean moldatzea dute gustuko.

### Bazkaria eginda ospatuko dute Aingeru Guarda eguna erretiratuek astelehenean

Astelehenean, martxoaren 1ean, Aingeru Guarda eguna da, eta herriko erretiratuek ospatu egiten dute. Domekan, 90 urtetik gorakoei omenalditxo egingo diete Basotxo erretiratuen elkarteak, 13:00etan. Aurten 15 izango dira, eta dantzariak aureskua dantzatu eta gero opariak banatuko dizkiete. Astelehenean, berriz, meza izango dute Agustindarren komentuan, 12:00etan, eta horren ostean bazkaria egingo dute Taberna Berri jatetxean.

### Herrian etxebizitza sozialak egiteko Eusko Jaurlaritzari lurra uztea erabaki zuen Udalak

Joan zen astean egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Eusko Jaurlaritzari lurra uztea etxebizitza sozialak egin ditzan. Behin-behineko onarpena egin zuten, eta orain, 15 egunean ikusgai egongo da inork alegaziorik aurkeztu gura badu. Kaminero-kua baserri alboan egingo ditu Jaurlaritzak etxebizitzok, 20 guttira, eta alokairuan hartzeko izango dira. Herrian egingo dituzten lehenengo etxebizitza sozialak izango dira.

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

**Aretz**

taberna

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

**Iber**

★ Loteria ★  
✿ Paper denda ✿  
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)  
Tel.: 943 77 13 57  
ARETXABALETA

**IRIARTE**

Umeen denda

Helduen lentzeria



Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

**KiXkur**  
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



**Lasai**

Mirian Manteca  
masajista

Lezama Zentru Komertziala  
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
  - Kraneala
  - Estrukturala
  - Funtzionala
- Lotura muskularrak

**BASABE**

jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel.: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

FUTBOLA

## Partidu garrantzitsua du preferenteko taldeak domekan Aloñaren aurka

Oñatiko taldeak 38 puntu ditu eta laugarren dago; UDA, ostera, 7. dago 37 punturekin

MIRARI ALTUBE

Oñatin jokatu du domekan UDAko preferenteko taldeak. Partidu gogorra izango da, oso berdinduta daude eta biak. Aloña Mendi laugarren postuan dago 38 punturekin, eta talde aretxabaletarra zazpigarrenean 37rekin. Jarraitzaileen indarrak beharko dituzte.

Benetan partidu bizia izango dute aretxabaletarrek domekan Aloña Mendiren futbol zelaian. 16:00etan hasiko da, eta jarraitzaileen oihuak beharko dituzte irabazi ahal izateko.

### PUNTU BAKARRAREN ALDEA

Kosta egin zitzaion Igor Gordobil Arrasateko entrenatzaileari taldea behar bezala osatu eta lanean jartzea. Hala, larri ibili ziren denboraldi hasieran aretxabaletarrak; izan ere zorte txarrekin batera, epaileen aldetik ere ez zuten bat ere laguntzarik jaso. Abenduaz gero, ostera, buelta eman zioten egoerari, eta azken 10 jardunaldietan ez dute partidu bakarra galdu: sei irabazi egin dituzte, eta beste lau berdindu.



ARTXIBOA

Azken hamar jardunaldietan ez dute partidu bakarra galdu aretxabaletarrek.

Hortaz, 22 puntu lortu dituzte abendutik hona.

Oñatiarrak ere ez dabilta batera gaizki aretxabaletarrak baino hiru postu gorago daude, nahiz eta puntu bakarraren alde izan. Domekako partiduan zer

gertatzen den ikusi behar, irabaziz gero Aretxabaletako taldeak aurrea hartuko liokeelako. Hala ere, ez da partidu erraza izango; Aretxabaletatik joandako jarraitzaileak beharko dituzte indarrak jasotzeko.

PILOTA

## Hirugarren mailako seniorrek bukatu dute Udaberri Pilota Txapelketaren lehen fasea

Oionek eta Uriartek eta Arroiabek eta Kortabarriak joan zen astean bukatu zuten Udaberri Pilota Txapelketako lehen fasea. Oionek eta Uriartek, gainera, ez dute partidu bat ere galdu, hortaz, zuzenean sartuko dira bigarren faseko. Arroiabek eta Kortabarriak, ostera, beste kanporaketa bat jokatu beharko dute bigarren fasean sartu ahal izateko. Aste honetan ez dute partidurik jokatu.

FUTBITOA

## Bigarren itzulia jokatzen hasita daude Arlutz Futbito Txapelketako parte-hartzaileak

Aurrera doa Arlutz Futbito Txapelketa, eta orain aste bi bigarren itzulia jokatzen hasi ziren. Apiril inguru arte iraungo du bigarren itzulia, eta horren ondoren, onenek finalurrekoak eta finala jokatuko dituzte. Oraingoz, Peña Hugo taldea doa sailkapenean lehenengo MCM taldeari irabazi ostean. Hala ere, talde batzuk ez dituzte partidu guztiak jokatu.

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

**Aloña-UDA**  
Preferentea.  
Domeka. 16:30. Oñati.  
**UDA/Almen-Elgoibar**  
Ohorezko gazteak.  
Zapatua. 17:30. Ibarra.  
**UDA-Hernani**  
Ohorezko gazteak.  
Zapatua. 11:00. Ibarra.

#### PILOTA

**Tolosa-Aretxab.**  
Lehen mailako seniorrak.  
Egubakoitza. 20:00. Iturrigorri.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

**Berio 0 UDA 2**  
Preferentea.  
**Dunboa Eguzki 3 UDA 3**  
Ohorezko gazteak.  
**UDA 8 Burumendi 3**  
Lehenengo mailako gazteak.  
**UDA/Almen 3 Ilintxa 2**  
Lehenengo mailako infantilak.

#### PILOTA

**Udaberri Pilota Txapelketa**  
**Aretxab. 22-Zumaiako 16**  
Hirugarren mailako seniorrak.  
**Zumaiako 17-Aretxab. 22**  
Hirugarren mailako seniorrak.  
**Aretxab. 22-Anaitasuna 9**  
Lehen mailako seniorrak.



*Basaben eta Loramendin  
gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81  
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19

*Aretxabaleta  
okindegia*



## ARETXABALETARRAKMUNDUAN

### SAIOA ELORDUIZAPATARIETXE

24 URTE / IKASLEA / BARTZELONA

## “Bartzelonan ez dago planik egin beharrik, beti dagoelako zerbait egiteko”

MIRARI ALTUBE

Dagoeneko lau urte daramatza Saioak Bartzelonan. Ingurumen ikasketak egitera joan zen, eta bukatu ostean, dokto- retza egiten hasi da. Aitortu digu lehenengo urtea oso gogorra egin zitzaioela, baina orain gustura bizi da: “Heldu nintze- nean ez nuen inor ezagutzen eta ez nuen ezer ulertzen. Benetan gaizki pasatu nuen, baina bigar- ren urterako lagunak nituen eta hizkuntza ulertzen ere hasi nintzen”, dio Saioak.

Orain lagun asko dauzka, baita mutil-laguna ere, eta kata- lanez oso ondo egiten du berba. “Bartzelonan ez dago planik egin beharrik, berez sortzen dira, beti dagoelako zer ikusi, zer entzun edo nora joan. Hori abantaila handia da”. Hala ere, Euskal Herria eta Aretxabale- ta ditu bihotzean Saioak; izan ere, hango giroa eta hemengo guztiz ezberdinak ei dira: “Senideak eta lagu- nak sumatzen ditut faltan, eta lagunekin taber- naz taberna ibil- tzea. Bartzelo- nan gaueko hamabieta- tik aurrera ateratzen dira kalera,



eta diskoteketan sartzeko iza- ten da” dio Saioak. Ez hori baka- rrik. Katalanak eta euskaldu- nak ere guztiz ezberdinak ei gara: “Oso hotzak dira katala- nak. Hilabete batzuetan lanean

“Guztiz harrিতuta daude Madrildik katalanei eraso egiten hasi direlako”

ibili naiz, eta nagusia eta lan- gilea oso ondo bereiztuta dituz- te. Lankideen artean ere ez geneukan batere harremanik lanetik kanpora”.

Kataluniako giro politikoa- ren gainean ere galdetu diogu: “Guztiz harrিতuta daude Madril- dik eurei eraso egiten hasi direlako. Gu ohituta gau- dela esaten diet, eta or- duan gure egoeraz jabetzen dira. Eus- kaldunen ideia erromantikoa dute, gainera. Orokorrean euskaldu- noi ha- rrera ona egiten digute”.

## HURRETIK



### ‘Fito’ Etxebarria

Langillie

Frantziako Iraultzie hartu daue gai moduen Fito-k eta UDAko kideiek mozarroketa. Mozorro ikusgarriek egitten dittu, herrixen girue sortzeko. Eta lortu egitten dau.

Noiz hasi zitzen herriko Aratustietan mozarroketa?

Ufff... ez dakit. UDAko kideekin oin lau urte hasi nitzen, eta aurretik beste lagun batzuekin urtetan neuen.

Noix hasten zara mozarrore pentsetan?

Aurtengue igezko Aratustiek pasau eta hillebetera pentsau neuen; gertaketan, ostera, hillebete inguru hasiko nitzen.

Eta ideak nundik hartzen ditzuzu?

Ez dakit ba... Talde batendako mozarrore izen biher dala kontuen hartzen dot, 30 bat lagun izeten garelako.

Mozorrotu zaren zein mozarrokin geratuko zitzake?

Asko izen die politiek: *On Kixote*, *golf jokari*, *erromatar*...

Eta ondiokan mozarrotu ez zaren eta gureko zeuken mozarrore badau?

Ez, gure izen ditudan guztixek eruen dittut aurrera.

Merezi dau hainbeste diru gastetiek?

Bai, horixe. Herrixen sortzen dan giruek eta egun horretako argazkixek ez daukie preziorik. Zenbat jente etorten dan, gainera, aurten be kale bat igerrri dot faltan jentie errepartidu eta Durana kalien lasaixau ibiltteko.

Ze daukie Aretxabaleetako Aratustiek kanpotik hainbeste jente etorteko?

Izugarrizko girue egoten dala. Horren gainen esan gureko neuke Udalak be zeozer gehitxuau egin biherko leukela jai- xe bultzeteketa. Kuadrilla eta herrittar asko jazten die, danek mozarro ikusgarri- xe ez euki arren, eta horrei guztixei be zeozer emun biherko leuskie, bokata bat jateko besterik ez bada be.

M.A.

## NIREBIDAIAHURA / Joseba Gonzalez

Zeelanda Berrira / 2002ko urrian

Ezkonbidaian joan zen Joseba Zeelanda Berrira. Antolatutako bidaia hartu beharrean, baina, karabana hartu zuen errentan, emaztearekin lasaiago ibiltzeko asmoarekin.

Bi uharte handi ditu Zeelanda Berriak, eta lehenen- go iparraldekoa ikustera joan ziren: Auckland hirira, hain zuzen. Aretxabaletar bat bizi da, gainera, bertan, Mari Carmen Rivera, eta harekin eta senarrarekin pasatu zituz- ten lehenengo egun biak. Hurrengo 18 egunetan zein ibil- bide egin ere eurek esan zieten. “Zeelanda Berrira ez da oso han- dia, eta karabanan ibiltzeko ohitura handia daukate berta- koek”, dio Josebak.

Iparraldeko uhartearen erdialdean eraketa geotermi- koak daude: terma, geysir, eta sumendiekin osatutako ingurua da. “Han, maorien kul- tura gertutik ezagutzeko auke- ra paregabea izan genuen”. Welligton hirian ferrya hartu eta hegoaldeko uhartera pasa- tu ziren. “Oso biztanle gutxi ditu uharte horrek. Paisaiari dagokionez, ostera, oso aber- tsa da: Zeelanda Berriko Alpe- ak daude bertan, baita fiordo- ak eta glaziarrak ere”. Ekial- deko kostaldean, Kaikoura inguruan, itsasoko lehoiak iku- si zituzten. Handik mendebal- deko kostalderantz egin zuten, bertako paisaia zoragarriare- kin gozatzeko. Bidaia Christ- church hirian bukatu zuten, esaten dutenez Ingalaterratik kanpo dagoen hiririk ingelesenean.

“Paisaia zoragarriak harritu gintuen gehien. Lehe- nengo sektoretik bizi dira gainera, eta oso industria gutxi dago. Ardi kopuruak ere atentzioa eman zigun, paisaia- rekin bat egiten zuten; izan ere, 47 milioi ardi daude, biztan- leak baino askoz ere gehiago”, dio Josebak. “Pena da gero hain urruti egotea”, gaineratu du.

M.A.



Zeelanda Berriko uharteetan mila modutako paisaiak aurki daitezke.



“Maorien kultura gertutik ezagutu genuen”

“47 milioi ardi daude; biztanleak baino askoz gehiago”

# ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

# URKULU

FERRETERIA • BRIKOLAJEA  
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66 / Faxes: 943 77 10 33  
urkulu@cadena88.com

# Mortin

erloju-denda

Bere bezeroen  
zerbitzura

Mitarte 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA

# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 27a / 157. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Airitzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETAKO • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: 55200/99

## Hotz egin arren, herritarrak mozorroak jantzi eta jai giroan murgildu ziren

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Inauterietan hainbat ekimen egi-ten dituzte Eskoriatzan. Eguenan, Urdelardero Eguna; zapatuan, herri bazkaria, zezen txikiak eta pottokak eta 60ko hamarkada jaialdia; martitzenean, kukumarroak. Ekimen ugari Inauteri festa giro paregabearen igarotzeko, nahiz eta eguraldiak askorik lagundu ez. "Babarrun-janak giro polita jarri zuen zapatuan, eta herrian zegoen jendea animatzeko balio izan zuen", aipatu digu herriko koadrila batek. Herriko tabernak ere girotu zituzten.

ARGAZIAK: Z.V.M.



Kukumarroak zirikatzen aritu ziren martitzen arratsaldean.



Inkernu taberna sorginek irabazi zuten mozorrotutako tabernen lehiaketa.



Hippy-ek errebindikazio mordoia egin zuten euren jaietan.

*Aurreko urteotan baino jende gutxiago egon zen arren, giroa alaitu zuen herri bazkariak*

*Martitzenean, besteak beste, 'sorgintxoak' eta 'erletxoak' ikusi genituen*



Erratzek bikain dantzatu eta erratzu zuten plaza.



Erratz alderantziz hærtuta égiten du hegan sorgintxo honek!



Shin Txan mordoia ikusi genituen Eskoriatzatik bueltaka.



**TELEFONJAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzaila	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Onati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**ELKARRIREN SINADURA BILKETA**

Otsailaren 28an Elkarriren sinadura bilketa kanpaina amaituko da, eta herriaren ere jarriko dute mahaian.

Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan elkarrizketarako foro alderdianitz bat proposatzeko ari dira sinadura bilketa egiten. Elkarteko kide, boluntario eta sinatzaileak batuta 30.000- 50.000 lagun mobilizatzea espero dute. Elkarririk, indarkeriarik eza eta bazterketarik gabeko elkarrizketa eskatu nahi du, eta horretarako hiritar ezezagun eta askotarikoan 100.000tik gora sinadura biltzea lortu nahi du.

**AXTROKIRENAGENDA**

**ASTELEHENEN GOIENKARIA**

Axtrokiko bazkideek Asteleheneko Goiengariko harpide egiteagatik 20 euro ordaindu beharko dute, eta orain eginez gero, opari politak jaso ditzakete.

**KULTURA**

**Udal Bibliotekak urtebete darama Eskoriatzako San Pedro auzoko eraikinean**

Z.V.M.

Urtebete bete da Eskoriatzako Udal Biblioteka berriak atea ireki zituenetik. 2003ko otsailaren 21ean inauguratu zuten San Pedro auzoan dagoen egoitza. Eraikin berriak bete duen urtea aztertu eta hainbat ondorio atera dituzte arduradunek: lehenik, azken 12 hilabeteotan aurreko urteotan baino askoz ere liburu gehiago mailegatu dira; bestetik, bezereen kopuruak gora egin du; eta, azkenik, ikus-entzunezko euskarriak bibliotekan sartuta, maileguak ugari egin dira.

Aurreko bibliotekak 90 metro koadro zituen; San Pedro auzoko eraikinak, aldiz, 423 metro koadro ditu, eta hiru esparrutan bana daiteke: haurtxoteka, haur/gazteen esparrua eta, azkenik, helduen esparrua. Eskaintza zabalago dago Udal Bibliotekan: 11.748 liburu, 232 DVD, 231 CD eta 79 CD-ROM daude aukeran.

Askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu herriko bibliotekak, aurrekoak baino gehiago. Dokumentuak kontsulta eta mailega

*Urte honetan, guztira, 5.186 dokumentu mailegatu dira Udal Bibliotekan*

daitezke, esaterako. Urte honetan, guztira, 5.186 dokumentu mailegatu dira. Ordenagailuen bidez Internet erabiltzeko aukera dute liburutegiko bazkideek, eta fonoteka ere badu Udal Bibliotekak, bibliotekan bertan musika entzun edo mailegatzeko.

Hainbat iradokizun eta eskaera egin dituzte bezeroek liburutegi berria zabaldu zenetik hona. Arratsaldez bakarrik irekitzen dela ikusita, arduradunek esan digute herritarrek gura dutela biblioteka goizez ere irekitzea. Juan Carlos Bengoa alkateak esan duenez, 2004ko aurrekontua proposatzerakoan landuko den gaia da hori. "Eraikin berriaren aurre-



ARTIBOIA

Eraikin berriak toki eta eskaintza gehiago ditu erabiltzaileentzako.

koan baino eskaintza eta erabiltzaile kopuru handiagoa dago. Lehen, mailegatu bakarrik egin zitekeen. Horren ondorioz, ordu-tegi zabalagoa behar da", azaldu du Juan Carlos Bengoak. "Hainbat ordutegirekin probak egin, eta herriari hobeto doakiona hautatu", adierazi du.

Herritarrei zerbitzu hobea emateko ari dira lanean bibliotekako arduradunak. Baina eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzeko, bazkide txartela izatea derrigorrezkoa da, eta txartel hori doan da. Hortaz, aukera paregabea diskoak, liburuak, eta abar hartzeko, Internet erabiltzeko...



**Indarrean dago ibiak arautuko dituen ordenantza**

Eskoriatzako Udalak ibiak arautzeko udal ordenantza onartu zuen. Otsailaren 3an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, iragan zapatuan jarri zen indarrean. Ondorioz, orain arteko "ez aparkatu" seinaleak kendu beharko dira, jendea ez nahasteko. Jarduera komertziala edo industrialaren duten lokalek, edo garage pribatuek sei hilabeteko epea izango dute lizentziak berritzeko. Informazio gehiago Udaletxeko Hirigintza bulegoan. /Z.V.M.

**ZUZENKETA**

**Urdelardero egunak hogeita sei urte baino gehiago**

Joan den astean Urdelardero buruz argitaratutako berriaren, argitaratu genuen jaia duela 26 urte hasi zela ospatzen. Hori ez da zuzena. Urdelardero jaia aspalditik ospatzen den ekimena da. Herriko helduek ere gogoratzen dute gazte garaian ospatzen zutela. Espainiako gerra piztu, eta denbora luzean ospatzeari utzi zioten. Etenaldiaren ondoren, duela 26 urte, herriko Santa Ana ikastetxeak jaia berreskuratu eta askotariko ekin-tzak antolatzeari ekin zion.


BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Laster denda berriua!

Markoztatzea



**COMPOSTELA Taberna**

**Olagarro espezialitatea**

San Pedro 12  
ESKORIATZA  
943 71 48 70



**DORILETA**

Aranburuzabala 22, behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 51 20

# Hotzak lagundu ez, baina giro ona egon zen Gatzagan Inauteri-zapatuan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Gatzagarrek ederto pasa zuten Inauteri-zapatuan. Hotz egiten zuten arren, gazte ugari gerturatu zen pilotalekura, askotariko jokoetan parte hartzera. Era guztietako mozorroak ikus zitezkeen Gatzagan. Eguna amaitzeko, afaria egin zuten gazte eta helduek Ostatun.

Eguraldia lagun ez izan arren, Inauteri-zapatuan primeran pasatu zuten gatzagarrek. Haurrentzako jokoak, herri txikiteoa eta herri afaria izan ziren zapatuko ekintza nagusiak.

Aratusteetan ohitura den legez, herritar gehienak mozorrotuta irten ziren. Arropa jan-tzi, eta jai giroa dastatzera irten ziren. Txikienek izan zuten zapatuko ekintzak estreinatzeke aukera, jolasetan parte hartuta.

Ondoren, helduen txanda iritsi zen: txikiteoa egin zuten, afalordura arte. Bukatzeko, denek batera Ostatun afaldu zuten, eta Aretxabaletako Basabek giroa alaitu zuten musikarekin.



Nahiz eta hotz egin, antolatutako jokoetara gazte ugari hurbildu zen zapatuan: indiarrek, mexikarrek...

Z.V.M.



Z.V.M.

Maitagarriak ere ibili ziren Gatzagan Inauteri-zapatua ospatzen.



ARTXIBOA

Jolasteaz gain tripa betetzeko tartea ere eduki zuten mexikarrek.

## LABUR

### Askotariko gaiak atzo eginiko ohiko osoko bilkuran

Gatzagako udalbatzak ohiko osoko bilkura egin zuen atzo, osteguna. Hainbat gai jorratu zituzten bertan. Hasteko, aurreko akta onetsi zuten, eta, horrekin batera, hainbat faktura eta gastu ere bai. Bestalde, *Udal talde 21 Debagoiena* proiektua garatzeko eta eratzeko lankidetzak hitzarmena ere onetsi zuten. Debagoieneko beste herri batzuek proiektua aurrera eraman eta ingurumen alorrean zein pauso eman behar den finkatuko dute. Orain arte, Arrasate da proiektua abian duen ibarreko herri bakarra. Bestalde, gaia aldatu, eta atzoko bilkuran kultur taldeei dirulaguntzen bigarren zatia ordaintzeko proposamena egin zuten. Eta landutako beste gai bat izan zen *Presoen eskubideen aldeko proposamena*-ri buruzko alkatezaren mozioa.

### Emakumeen bazkaria antolatatu du Sorginak-ek

Martxoaren 8a Emakumeen Eguna da. Eta eguna gertu dagoela eta, Gatzagako Sorginak emakume taldeak martitzenean, hilak 24, bilera egin zuten. Aurreko urteetan bezala, bazkaria antolatzea erabaki zuten bertan. Hain zuzen ere, bazkaria martxoaren 6an izango da. Herriko emakume guztiei zuzendutako deialdia izanik, gutxi gorabehera 40 bat lagunek izena ematea espero dute. Epea otsailaren 29ra arte egongo da zabalik, eta interesatuek Labideara jo beharko dute. Gure Ametsan izango da emakumeen bazkaria. Giro paregabeen bazkaldu ondoren, *sorginen* urteroko bidaia nora egin erabakiko dutela esan digu Amaia Olabe taldekideak. Aurreko urteotan Oviedo eta Burgos aldean egon dira, besteak beste. Lagun artean toki berriak ezagutzeko aukera izango dute, beraz, emakumeek. Hala ere, nora joan erabakitzeke, Gure Ametsako bazkarira joan behar.

**ALZA**

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3  
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

**LENIZ**  
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**SUZUKI**

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

**AZKOAGA**

ESTANKOA

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura



Maulanda  
*merenderoa*

Eguneko  
menua

Maulanda Auzoa ESKORATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

# ILUNTZEAN

## Idoia Zenarruzabeitia solaskide

Eguenean, martxoaren 4an  
21:15ean

**Aurkezlea:**  
Aintzane Gardoki

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**

ILUNTZEAN  
Ile apaindegia: Gorka  
Jantziak: Udalaiz



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida



**Alto Deba**  
margoak

DEKORAZIO PINTURA  
PINTURA INDUSTRIALA  
FATXADAK

Tel. eta Faxe: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25



**J.SANCHEZ**  
ITURGINTZA

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10  
ARETXABAleta

Tel. eta faxe: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

Dintura eta dekorazioa



**Gimbert**

San Migel 13, behea C  
ARETXABAleta  
609 143 119



RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA

**"R.E.L.E."**  
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tel.- Faxe: 943 71 41 65

Tailerra:  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tel.-Faxe: 943 71 41 12

ESKORIATZA

**AITZORROTZ**  
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta
- Atezain automatikoak
- eta konponketa
- Antena kolektiboak
- Instalazio elektrikoak
- Informatika

Otalora 14 ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 16 10

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza  
Dekoratio eta Industrial

San Pedro 14, behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxe: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Poltsikokoa: 608 92 11 18

**FRIXI** Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturak,  
urbanizazio, kontratak  
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA  
Tel. eta faxe: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN**  
Iturgintza

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza •  
Gasa •  
Berogailuak •  
Peetrolio-produktuak •  
limatizazioa •

**L. GONZALEZ**  
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6  
ARETXABAleta  
686 113 581

**ARETXARGI**

Modesto ROMEO  
Aretxargi@euskalnet.net

BELOORRIETA 16, BEHEA 20550 ARETXABAleta - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



**URKO**  
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenimendu osoa  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxe: 943 79 59 97

ALUMINIOA/P.V.C./POLIURETANOA  
ALUMINIOA-EGURRA  
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Aluminios  
KURTZEBARRI  
Aluminioak



Araba ibilbidea, 17 eta 25  
•Tel: 943 79 28 41 •Fax: 943 79 79 06  
•20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
•E-mail: kurtzebarri@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1  
117 posta kutxa  
ARETXABAleta

Telefonia eta faxe:  
943 79 78 45  
Poltsikokoa:  
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkõnerak, eta abar.

**ARETXABAleta**  
ITURGINTZA

Durana 16 Tel.: 943 79 17 53  
ARETXABAleta

**J.J. ITURGINTZA**  
IRURE

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA



MITARTE 15  
ARETXABAleta

943 793 187